

 IKUSMIRA



PLAZAN HAZI EDO KIKILDU?

Galako jantzita, emanaldirako. Inguru-
koen begiek adi jarraituko dituzte txi-
kien hankek marraztutako mugimen-
duak. Batzuk entseguetan baino
arinago eta abilago ibiliko dira; ohol-
tza eder horretan eta jantzi nabarmen
horiekin dantzari hobeak sentituko di-
relako, plazan hazi egingo direlako,
eroso hazi. Beste batzuk, berriz, en-
tseguetan baino baldarrago, astuna-
go, traketsago arituko dira, plazak ki-
kildu egingo dituelako, begira
dituzten begiek bizkarrean zama jarri-
ko dietelako. Denborarekin ikasiko du-
te akaso plazakoa maneiatzen, baina
norbere nortasunak eta besteek es-
pero dutenak pisu handia dauka da-
goeneko gorputz txikietan.